Larunbat arrats guziz bezala, Pettan heldu da bizikletez...argirik gabe.
Maiz gertatzen dena, jendarma pareak bide bazterrean dago.
« - Hep, gelditu zaitez, otoi.
- Bai, zer da ?
- Zer den ?? Oraindik ere argirik gabe zaude. Zer erran genizun joan den hilabetean ?

*Comme tous les samedis soir, Pettan vient à bicyclette...sans lumière.
Et ce qui arrive souvent, deux gendarmes sont là, en bord de route.
« - Hep, arrêtez-vous, s'il vous plaît.
- Oui, qu'y a-t-il ?
- Qu'y a-t-il ?? Vous êtes encore sans lumière.Qu'est-ce que nous vous avons dit le mois dernier ?*

68 hirurogeita zortzi

- Bai, bai, erran zenidaten anpula berria ezarri behar nuela. Zuek errana egin nuen, bainan anpula berehala erre zen !
- Eta gainera mozkorra zara. Komisaldegira eramane zaitugu. Ikusiko dugu zer egingen dugun bihar. »
Zalapartaka eta laidostaka gure gizona !
Azkenean , jandarmek bizikleta eta biak furgonetan sartzen dituzte.

*- Oui, oui, vous m'aviez dit que je devais mettre une ampoule neuve. Je l'ai fait, mais l'ampoule s'est grillée tout de suite!
- Et, en plus, vous êtes ivre. Nous allons vous emmener au commissariat. Nous allons voir ce que nous ferons demain. »
Voici notre homme gesticulant et vociférant !
Finalement, les gendarmes embarquent Pettan et son vélo dans la fourgonnette.*

Dans le dialogue, nous avons deux exemples:

Zer erran genizun ? C'est le cas **guk** ,gauza bat zuri erran. **Beraz, donc : genizun Erran zenidaten zuek**, gauza bat niri erran. **Beraz : zenidaten.**

Nous avons déjà vu les deux cas *NORI ? hari* eta *haiei*. Voyons les autres cas

3° NORI ? niri

Hark	bizikleta hartu	zidan	bizikletak hartu	zizkidan
Zuk		zenidan		zenizkidan
Zuek		zenidaten		zenizkidaten
Haiek		zidaten		zizkidaten

4° NORI ? guri

Hark	isuna eman	zigun	esku-burdinak ezarri	zizkigun
Zuk		zenigun		zenizkigun
Zuek		zeniguten		zenizkiguten
Haiek		ziguten		zizkiguten
	isuna : l'amende	esku-burdinak	les menottes	

5° NORI ? zuri

Nik	ez nizun	gezurrik erran	laidoak bota	nizkizun
Hark	ez zizun			zizkizun
Guk	ez genizun			genizkizun
Haiek	ez zizuten			zizkizuten
	laidoak : les insultes	laidostatu : insulter		

6° NORI ? zuei

Nik	gutuna irakurri	nizuen	ipuinak kondatzen	nizkizuen
Hark		zizuen		zizkizuen
Guk		genizuen		genizkizuen
Haiek		zizueten		zizkizueten

69 hirurogeita bederatzi

Ariketak

1° Esanaldiak osa itzazu, aditzak iraganean erabiliz :

adibidez : **Zuk, niri, goxokiak erosi. Zuk=>zen, goxokiak=> zenizki, niri=>da. zenizkidan**

- | | |
|---|---|
| - Hark, guri, egia erran.. | => Hark guri egia erran... zigun. |
| - Guk, haiei, sardinak saldu... | => Guk haiei sardinak saldu... genizkien. |
| - Nik, zuri, liburua irakurtzen... | => Nik zuri liburua irakurtzen... nizun. |
| - Zuek, hari, bizikleta hartu... | => Zuek hari bizikleta hartu... zenioten. |
| - Haiek, zuei, beribila ebatsi... | => Haiek zuei beribila ebatsi... zizueten. |
| - Guk, zuri, fruituak saltzen... | => Guk zuri fruituak saltzen... genizkizun. |
| - Hark, niri, gezurra erran... | => Hark niri gezurra erran... zidan. |
| - Zuk, haiei, ipuina kondatzen... | => Zuk haiei ipuinak kondatzen... zenizkien. |
| - Haiek, guri, etxea saldu... | => Haiek guri etxea saldu... ziguten. |
| - Nik, zuei, isunak eman... | => Nik zuei isunak eman... nizkizuen. |
| - Zuek, hari, laidoak bota... | => Zuek hari laidoak bota... zenizkioten. |

2° Orai, alderantziz : A partir du verbe, retrouvez le contexte : NOR ? NORI ? NORK ?

adibidez : zizkien => zizki : hark, anitz gauza, e=> haiei. Beraz : zizkien

Pettanek gendarmeak laidoak bota zizkien

- nizun :	nik zuri gauza bat =>	egia erran nizun.
- zenidaten :	zuek niri gauza bat =>	bizikleta hartu zenidaten.
- genizkien :	guk haiei anitz gauza =>	fruituak erosi genizkien.
- ziguten :	haiek guri gauza bat =>	beribila ebatsi ziguten.
- zenizkion :	zuk hari anitz gauza =>	loreak saldu zenizkion.
- zizun :	hark zuri gauza bat =>	musu eman zizun.
- zeniguten :	zuek guri gauza bat =>	isuna eman zeniguten.
- nizkizuen :	nik zuei anitz gauza =>	ipuinak kondatu nizkizuen.
- zizkidan :	hark niri anitz gauza =>	zozokeriak erran zizkidan.
- genion :	guk amatxi gauza bat =>	opari bat eskaini genion.

Avez-vous saisi le mécanisme de cette conjugaison ? Maintenant, il faut peu à peu l'assimiler.

Pendant l'émission qui dure tout au plus une demi-heure, vous n'avez sans doute pas le temps de trouver la réponse. Par la suite, faites l'exercice selon votre rythme. Il serait bon, bien sûr, que vous vous exerciez en groupe.

Ez duzue etsitu behar il ne faut pas vous décourager.

Pixkanak, forma horiek buruan sartuko zaizkizue.

Peu à peu, vous allez assimiler ces formes.

(Mot à mot : ces formes vous entreront dans la tête !)

70 hirurogeita hamar

Hogeita bigarren ikasgaia

Hogeita batgarren ikasgaiaren berrikuspena

Huna taula osoa : Voici le tableau complet :

NOR, ZER ? NORI ? NORK ? iraganean

NORK ?	NORI ?	ZER ? singularra	ZER ? plurala
Hark	<i>niri</i>	ogia eman zidan	goxokiak zizkidan
Zuk	<i>niri</i>	ogia eman zenidan	goxokiak zenizkidan
Zuek	<i>nir</i>	ogia eman zenidaten	goxokiak zenizkidaten
Haiek	<i>niri</i>	ogia eman zidaten	goxokiak zizkidaten
Nik	<i>hari</i>	liburua erosi nion	liburuak nizkion
Hark	<i>hari</i>	liburua erosi zion	liburuak zizkion
Guk	<i>hari</i>	liburua erosi genion	liburuak genizkion

Zuk	<i>hari</i>	liburua erosi	zenion	liburuak	zenizkion
Zuek	<i>hari</i>	liburua erosi	zenioten	liburuak	zenizkioten
Haiek	<i>hari</i>	liburua erosi	zioten	liburuak	zizkioten
Hark	<i>guri</i>	etxea saldu	zigun	etxeak	zizkigun
Zuk	<i>guri</i>	etxea saldu	zenigun	etxeak	zenizkigun
Zuek	<i>guri</i>	etxea saldu	zeniguten	etxeak	zenizkiguten
Haiek	<i>guri</i>	etxea saldu	ziguten	etxeak	zizkiguten
Nik	<i>zuri</i>	gutuna idatzi	nizun	gutunak	nizkizun
Hark	<i>zuri</i>	gutuna idatzi	zizun	gutunak	zizkizun
Guk	<i>zuri</i>	gutuna idatzi	genizun	gutunak	genizkizun
Haiek	<i>zuri</i>	gutuna idatzi	zizuten	gutunak	zizkizuten
Nik	<i>zuei</i>	atea ideki	nizuen	ateak	nizkizuen
Hark	<i>zuei</i>	atea ideki	zizuen	ateak	zizkizuen
Guk	<i>zuei</i>	atea ideki	genizuen	ateak	genizkizuen
Haiek	<i>zuei</i>	atea ideki	zizueten	ateak	zizkizueten
Nik	<i>haiei</i>	egia erran	nien	gezurak	nizkien
Hark	<i>haiei</i>	egia erran	zien	gezurak	zizkien
Guk	<i>haiei</i>	egia erran	genien	gezurak	genizkien
Zuk	<i>haiei</i>	egia erran	zenien	gezurak	zenizkien
Zuek	<i>haiei</i>	egia erran	zenieten	gezurak	zenizkieten
Haiek	<i>haiei</i>	egia erran	zieten	gezurak	zizkieten

71 hirurogeita hamaika

Comparons les deux tableaux : NOR ? *NORI* ? **NORK** ? au présent, p.43 et au passé.

1° ZER ? Au présent le verbe commence toujours par di, si le COD est au singulier, par dizki, si le COD est au pluriel : **liburua erosi diot**, **liburuak erosi dizkiot**.

Au passé, on retrouve le i qui exprime le radical du verbe et l'infixe zki qui exprime le pluriel au présent comme au passé : **gutunak idatzi dizkiogu**, **gutunak idatzi genizkion**.

2° *NORI* ? Là encore, l'infixe du datif est le même au présent et au passé :

niri=> *da* **ogia eman didate**, **ogia eman zidaten**.
hari=> *o* **erran diozu**, **erran zenion**.
guri=> *gu* **etxea saldu digute**, **etxea saldu ziguten**.
zuri=> *zu* **egia erran dizut**, **egia erran nizun**.
zuei=> *zue* **atea ideki dizue**, **atea ideki zizuen**
haiek=> *e* **erran diezue**, **erran zenieten**

3° **NORK** ? Là, par contre, au présent c'est la terminaison qui représente le sujet, et au passé, le sujet est exprimé au début du verbe :

nik erran diot, **erran nion** **guk ematen diogu**, **ematen genion**
hark erosi dio, **erosi zion** **haiek ekarri diete**, **ekarri zieten**
zuk salduko diguzu, **salduko zenigun** **zuek idatzi diguzue**, **idatzi zeniguten**

Enfin, rappelons que tout verbe au passé se termine par n : **zizun** , ou par en : **zizuten**.

Laissons de côté la conjugaison, il faut « ingurgiter » cela petit à petit, **emeki emeki, batxe batxe !**
Et écoutez ce petit exposé :

Korrika 12

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">- Korrika da Euskal Herrian zehar lasterka egiten den ibilaldi famatua.- AEK, Euskal Herri osoko federakuntzak antolatzen du bi urte guziz.- Korrikak mezu bat dakar (edo ekartzen du), lekukoa deitzen den makila barnean : euskara, gure hizkuntza bizi dezagun.- Korrikak AEKri hainbeste behar duen diru laguntza ekartzen dio.- Aurtengo korrika Gasteizen hasi zen, martxoaren 29an eta igandean, apirilaren 8an Baionan bukatuko da.- Gau eta egun Korrika ibiltzen da, gelditu gabe.- Bixtan da, hamar egunez ez dela talde bera lasterka ibiltzen !- Ez,ez, Euskal Herrian balentriak egiten ditugu, bainan holakorik ez ! Kilometro bakoitzentzat, lekuko eramaile bat dago. Lasterka, batek besteari makila ematen dio. | <ul style="list-style-type: none">- <i>Korrika est un parcours populaire qui se réalise à travers le Pays Basque.</i>- <i>La confédération AEK de tout le Pays Basque l'organise tous les deux ans..</i>- <i>Korrika porte un message contenu dans un bâton appelé le témoin, lekukoa. Ce message dit: vivons notre langue.</i>- <i>Korrika apporte à la confédération l'aide financière dont elle a tant besoin.</i>- <i>Korrika de cette année a commencé à Gasteiz le 29 mars et elle se terminera à Bayonne le dimanche, 8 avril.</i>- <i>Korrika va de jour et de nuit, sans s'arrêter.</i>- <i>Bien sûr,ce n'est pas la même équipe qui va ainsi en courant !</i>- <i>Non, non, au Pays Basque, on réalise des prouesses, mais pas à ce point-là ! A chaque kilomètre, il y a un porteur de témoin. De l'un à l'autre, ils se passent le relais.</i> |
|--|--|

72 hirurogeita hamabi

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">- Korrikan parte hartzen dutenek nahi duten dirua emaiten dute. Bestalde, sustengatzaileak badira euskararen erakaskuntzaren alde direnak.- Erran behar da, Iparraldean bereziki, AEKak ez duela publikoki aski diru laguntzarik ukaiten, euskara ez baita hizkuntza ofiziala, estatu espainolean bezala.- Beraz, « Herritartzen » entzuten duzuenek parte har dezakezue Baionan egingen den <p>besta politean, igandean, apirilaren 8an. Korrika etorriko da eguerdi eta erditan. Ea elkar ikusten dugun !</p> | <ul style="list-style-type: none">- <i>Ceux qui participent à la korrika paient le parcours selon leur souhait. D'autre part, il y a des bienfaiteurs favorables à l'enseignement du basque.</i>- <i>Il faut dire qu'en Iparralde, notamment, AEK perçoit des instances publiques des subventions insuffisantes, car l'euskara n'est pas langue officielle comme dans l'Etat espagnol.</i>- <i>Donc,vous qui écoutez « Herritartzen » vous pourrez participer à la fête qui sera</i> <p><i>organisée à Bayonne dimanche 8 avril. Korrika arrivera à midi et demi. Voyons si nous nous rencontrons !</i></p> |
|---|---|

Après cette première lecture, avez-vous compris le texte ?

batere du tout; **pixka bat** un peu; **testo osoa** tout le texte.
Reprenons la lecture et traduisons le texte.

Euskaratik frantsesera :

- **Lehen korrika, mila bederatzi ehun** - *La première korrika se fit en 1980.*
eta laurogeian egin zen.
- **Aurtengoa hamabigarrena da.** - *Celle de cette année est la douzième.*
Gasteizetik Baionara doa. *Elle va de Gasteiz à Bayonne.*
- **Urtero, gero eta jende gehiagok** - *Chaque année, de plus en plus de monde*
parte hartzen du. *y prend part.*
- **Orai dela bi urte nire anaiak lekukoa** - *Il y a deux ans mon frère porta le témoin*
eraman zuen herriko plazatik geltokira. - *de la place du village à la gare.*

73 hirurogeita hamahiru

Frantsesetik euskarara :

- *Je t'avais vu de ma fenêtre. C'est Patxi*
qui te donna le témoin. Ensuite, tu l'avais
donné à Amaia. **zenion.**
 - *Antton avait parcouru trois kilomètres.* - **Leihotik ikusi zintudan. Patxik lekukoa**
eman zizun. Eta gero zuk Amaiari eman
 - *Moi je n'avais pas voulu courir, parce-* **Nik ez nuen kurritu nahi, patarra goiti**
qu'il fallait monter la côte. **joan behar zelako.**
 - *Dimanche nous allons parcourir le* - **Igandean azken kilometroa kurrituko**
dernier kilomètre. Il y aura beaucoup **dugu. Jende anitz izanen da.**
de monde.
-

Hogeita hirugarren ikasgaia

**Gaur berrikusiko dugu hamabigarren
ikasgaian erabili genuen egitura bat :
galdezko perpausa :**

*Aujourd'hui nous allons revoir une tournure
que nous avons utilisée à la 12ième leçon :
la subordonnée interrogative :*

Tournures interrogatives directes : **nor da ? non bizi zarete ? zer jan duzu ?**

Tournures interrogatives indirectes :

badakit nor den, non bizi zareten, je sais qui tu es, où vous habitez,

ez dakit zer jan duzun je ne sais pas ce que tu as mangé.

L'auxiliaire employé dans la subordonnée interrogative porte le suffixe **n** ou **en**.

Reprenons la conjugaison des deux auxiliaires portant le suffixe **n** ou **en**

	Izan	Ukan
Amak badaki	non naizen	Aitatxik ez daki zer jan du <u>dan</u>
Peio non	den	Peiok zer jan du <u>en</u>
Non garen		zer jan du <u>gun</u>
non zaren		zer jan du <u>zun</u>
non zareten		zer jan du <u>zuen</u>
haurrak non	diren	haurrek zer jan du <u>ten</u>

Rappel : Pour éviter la confusion entre **dut** et **dute**, **dut** devient **dudan** et **dute** **duten**.

On utilisera la même tournure dans la subordonnée relative, **perpaus erlatiboa** que nous allons employer dans la leçon d'aujourd'hui.

Elkarrizketa

Aprendiz berria eta taldeburua

Le nouvel apprenti et le chef d'équipe

- Eskatu dizudan lana egin duzu ?
- Ez.
- Ah ! Zergatik ?
- Nik nahi dudana egiten dut.
- Begira mukizu hori !! Hemen nik manatzen dut. Ahal dudana guzia egiten dut lantegia ekoizkor* izan dadin. Eta zuk, behar dena egingen duzu. Nirekin ados ez direnak, kanpora ! Bai ?
- Bon, bon, bon !
- Are, lot lanari !.. Oraiko gazteak ! nire denboran ez zen holakorik gertatuko !

- As-tu fait le travail que je t'ai demandé ?
- Non..
- Ah ! Pourquoi ?
- Moi je fais ce que je veux.
- Regardez ce morveux!! Ici, c'est moi qui commande. Je fais tout mon possible pour que l'usine soit rentable. Et toi, tu feras ce qu'il faudra. Ceux qui ne sont pas d'accord avec moi, dehors ! Vu ?
- Bon, bon, bon !
- Allez, au travail !... Les jeunes d'aujourd'hui ! De mon temps ça ne serait pas passé comme cela!

*ekoizkor. productif, rentable. Synonyme : **emankor**: fertile, **lur emankora**.

75 hirurogeita hama bost

nahi dute=> **nahi dutena** *ce qu'ils veulent*, **ahal duzu** => **ahal duzuna** *ce que tu peux* **behar dugu** => **behar duguna** *ce qu'il nous faut*.

La terminaison **n** correspond, dans ce cas, au pronom relatif *que*. La terminaison **a** qui correspond à ce donne au verbe la valeur d'un nom. Nous en avons déjà parlé :

jostatzea gustatzen zait *j'aime jouer, le fait de jouer.*

zer goxo den mendian ibiltzea ! *qu'il fait bon marcher en montagne!*

Voyons maintenant la phrase :

Eskatu dizudan lana egin duzu ? *As-tu fais le travail que je t'ai demandé ?*

nahi dut => **nahi dudana** **eskatu dizut** => **dizudan**

En général la proposition subordonnée précède la principale :

eskatu dizudan lana *le travail que je t'ai demandé* **egin duzu** *l'as-tu fait?*

Nous avons dit que, généralement en basque, le verbe est employé en fin de phrase : **liburua irakurri dut, Maulera joan gara...***j'ai lu le livre, nous sommes allés à Mauléon.*

Dans la subordonnée relative, le verbe précède le nom : **ikusi dugun filma, etorri den gizona.**

En français, c'est l'inverse : Le nom appelé *antécédent* précède le relatif et le verbe :

Le film que nous avons vu, l'homme qui est venu :

Si l'on emploie le verbe **ukan**, le relatif correspond à *que* en français:

irakurri duzun liburua *le livre que tu as lu.*

Si l'on emploie le verbe **izan**, le relatif correspond à *qui* en français :

etorriko den emaztea *la femme qui viendra.*

Un petit exercice pour bien comprendre cette tournure :

1. **Esanaldiak erlatiboan ezar itzazu, adibidez :**

Filma ikusi dugu => **ikusi dugun filma...** *le film que nous avons vu*

Gizona etorri da => etorri den gizona... *l'homme qui est venu*

- haurrek marrazkiak egin dituzte => ... haurrek egin dituzten marrazkiak
les dessins que les enfants ont réalisés
- ipuina kondatu diguzu => ... kondatu diguzun ipuina *l'histoire que tu nous as racontée*
- gereziak erosi ditut => ... erosi ditudan gereziak *les cerises que j'ai achetées*
- emaztea kantatzen ari da =>... kantatzen ari den emaztea *la femme qui chante*
- mutikoa gurekin heldu da => ... gurekin heldu den mutikoa *le garçon qui vient avec nous*

2. Esanaldiak osa itzazu, adibidez :

ikusi dugun filma interesgarria da. *le film que nous avons vu est intéressant.*

etorri den gizona Manex deitzen da. *l'homme qui est venu s'appelle Manex.*

- haurrek egin dituzten marrazkiak...politak dira.
les dessins que les enfants ont réalisés sont jolis
- kondatu diguzun ipuina...irrieginaria da. *l'histoire que tu nous as racontée est comique.*
irri egin rire. irrieginaria qui fait rire.
- kantuz ari den emaztea... Maite Idirin da *la dame qui chante c'est Maite Idirin.*
- gurekin heldu den mutikoa... nire semea da *le garçon qui vient avec nous c'est mon fils.*

Lorsque la phrase est complète, propositions relative et principale, se pose un problème en basque: **etorri den gizonak loreak saltzen ditu** :

76 hirurogeita hamasei

Le nom **gizona** a deux fonctions, l'une dans la subordonnée : **etorri den gizona** et l'autre dans la principale : **gizonak loreak saltzen ditu**. Ce nom va s'accorder avec le verbe suivant, celui de la principale Donc on dira : **etorri den gizonak loreak saltzen ditu**.

Euskara, zer buru haustea !! le basque, quel casse-tête !!

Autre exemple : **kantuz ari den emaztea**, la suite : **boza ederra du** *elle a une belle voix.*

Beraz : kantuz ari den emazteak boza ederra du. Ados ?

Et si l'auxiliaire est au passé, comment forme t-on le relatif ? Reprenons la phrase du début :

Gaur berrikusiko dugu hamabigarren ikasgaian erabili genuen egitura bat

- le suffixe déjà employé, qui exprime le passé, est **n** ou **en**: **genuen**, donc le verbe ne change pas. Mais la position du verbe dans la phrase est la même qu'au présent :

hamabigarren ikasgaian erabili dugun egitura.

3. Esanaldiak iraganean ezar itzazu :

- Haurrak egin dituen marrazkiak... **haurrak egin zituen marrazkiak**
- Kondatu diguzun ipuina... **kondatu zenigun ipuina**
- Irakurri dizudan gutuna... **irakurri nizun gutuna**
- Kantuz ari den emaztea... **kantuz ari zen emaztea**

Eta orai itzulpen ariketak

1. Euskaratik frantsesera :

- **Nahi duguna da oporretan itsas** - *Ce que nous voulons c'est aller en vacances en*

bazterrera joatea.

- Ez duzue eginen nahi duzuen**a**,
bainan ahal duzuen**a**.

- Loretan diren arbolak gerezi
eta sagarrondoak dira.

- Eman dizut behar zenuen**a** :
ogia, ura, haragia eta fruituak.

- Alferrak (paresseux) direnek
ez dute lanik egin nahi.

bord de mer.

- Vous ne ferez pas ce que vous voulez, mais ce
que vous pouvez

- Les arbres qui sont en fleurs sont les cerisiers et les
pommiers. (**sagar** pomme. **sagarrondo** pommier)

- Je t'ai donné ce qu'il te fallait : du pain, de l'eau,
de la viande et des fruits.

- Ceux qui sont paresseux ne veulent pas travailler.

2. Frantsetik euskarara :

- La vache qui rit n'est pas folle (**eroa**)

- L'homme qui en savait trop.

- Je te prêterai (**prestatu**) le livre que
j'ai lu, il est intéressant

- Les sardines que vous nous avez
vendues n'étaient pas fraîches.

- La maison que nous avons achetée
n'a pas de balcon (**balkoin**)

- Irriz ari den behia ez da eroa.

- Sobera zekien gizonak

- Prestatuko dizut irakurri dudan liburua,
interesgarria da.

- Saldu diguzun sardinak ez ziren freskoak.

-Erosi dugun etxeak ez du balkoinik.

77 hirurogeita hamazazpi

Hogeita laugarren ikasgaia

Hogeita hirugarren ikasgaiaren berrikuspena

Perpaus erlatiboa

. Le suffixe qui exprime le relatif est **n** ou **en** :

etorri den gizona l'homme qui est venu **egin dugun lana** le travail que nous avons fait.

. Si le verbe de la subordonnée est **izan**, le relatif correspond à qui ; si ce verbe est **ukan**, le relatif correspond à que.

. Dans la subordonnée relative, le verbe précède toujours le nom, qu'il soit sujet : **etorri den gizona**, ou qu'il soit COD : **egin dugun lana**. En français, c'est le contraire. Le nom, appelé antécédent est employé devant le relatif et le verbe : l'homme qui est venu, le travail que nous avons fait.

. Dans la phrase complète, avec les deux propositions, la subordonnée: **saldu diguzun sardinak** et la principale: **ez ziren freskoak**, le nom **sardinak** a deux fonctions. Dans cette phrase, le nom **sardinak** est COD dans la subordonnée et sujet dans la principale. Ce nom s'accorde avec le verbe de la principale : **etorri den gizona** et **gizonak loreak saltzen ditu**. Cela donne : **etorri den gizonak loreak satzen ditu**.

. Pour traduire *ce que*, *ce qui* (ce au singulier) :

nahi dutena ce qu'ils,elles veulent, **ederra dena** ce qui est beau.

Pour traduire *ceux*, *celles que* ou *qui* :

gaiztoak direnak ez ditut maite je n'aime pas ceux qui sont méchants.

dirua dutenak ez dira beti uros ceux qui ont de l'argent ne sont pas toujours heureux.

La terminaison. **a, ak** qui est le déterminant donne au verbe la valeur d'un nom : **ahal duzuna** : ce que tu peux **etorri direnak** : ceux, celles qui sont venu(e)s, tout comme **ibiltzen** => **ibiltzea** ou **ibiltzeak** : oinez **ibiltzeak** on egiten du *marcher à pied fait du bien.*

NOR ? NORI ? iraganean

Hamabost eta hamaseigarren ikasgaietan *A la 15ième et la 16ième leçons nous avons*
NOR ? NORI ? kasua orainean aipatu *évoqué le cas NOR ? NORI ? au présent, employé*
genuen, hala nola gustatu aditzarekin *par exemple, avec le verbe gustatu plaire, aimer.*
Oroitzen zarete ? Ea :

	Singularra		Plurala
Niri	musika gustatzen zait	kirolak gustatzen	zaizkit
Peiori	zaio		zaizkio
Guri	zaigu		zaizkigu
Zuri	zaizu		zaizkizu
Zuei	zaizue		zaizkizue
Haiei	zaie		zaizkie

Eta orain iraganean

Har ditzagun kantu edo alegi batzuen *Prenons quelques vers de chansons ou de*
bertsuak : *fables connues :*

78 hirurogeita hemezortzi

. Belea eta axeria (Oxobi)

... Axeri bat ttapattan,
Zurxurira jin zaion
 Gosea tripan ! ...

Il faut dire que l'auteur a supprimé la première syllabe
 du verbe : **zit**, sans doute pour respecter la longueur du vers.
 Il fallait dire **zurxurira jin zitzaion**.

. Tiki ttikitik

... Neska xarmant bat ari zitzaintan *...Une charmante jeune fille*
mahainean zerbitzatzen... *me servait à table*
 (niri) ari zitzaitan ou zitzaidan

Konpara ditzagun oraina eta iragana :

Axeria jin zaio => Axeria jin zitzaion.
Neska ari zait zerbitzatzen => Neska ari zitzaidan zerbitzatzen.
 Que remarque t-on ?

. La terminaison **n** du passé.
 . Le préfixe **zit** qui exprime également le passé.
 . **zait** => **zitzaidan** : Le **t** final devient **da**, comme **zaitut** => **zintudan**, **dut** => **dudan**...

Voyons maintenant la conjugaison complète :

	Singularra		Plurala
Niri	laguna joan zitzaidan	lagunak joan	zitzaizkidan
Peiori	zitzaion		zitzaizkion
Guri	zitzaigun		zitzaizkigun
Zuri	zitzaizun		zitzaizkizun

Zueri
Haiei

zitzaizuen
zitzaien

zitzaizkizuen
zitzaizkien

Ariketa ttiki bat :

1.Esanaldiak iraganean ezar itzazu :

Haur bat etorri zait dirua eskatuz=> haur bat etorri zitzaidan dirua eskatuz.

Pettan artzainari ardiak eskapatu zaizkio => ardiak eskapatu zitzaizkion.

Zure bi semeak gerlara joan zaizkizu=> bi semea gerlara joan zitzaizkizun.

Bai, eta bat baizik itzuli zaigu, zango motza => bai, eta bat baizik itzuli zitzaigun
zango motza cul-de-jatte

2.Iraganean diren esanaldiak frantsesera itzul itzazu :

Traduisez en français les phrases qui sont au passé

79 hirurogeita hemeretzi

Haur bat etorri zitzaidan dirua eskatuz
Artzainari ardiak eskapatu zitzaizkion
Zure bi semeak gerlara joan zitzaizkizun
Bat baizik itzuli zitzaigun, zango motza

*Un enfant vint vers moi, me demandant de l'argent.
Les brebis du berger s'enfuirent.
Tes deux fils s'en allèrent à la guerre.
Un seul revint, cul-de-jatte.*

En français, on ne peut pas traduire ces formes personnelles. On peut ne pas les employer en basque et dire, par exemple : **Artzainaren ardiak eskapatu ziren, zure bi semea gerlara joan ziren, bat baizik itzuli zen.** Mais ces phrases sont moins typiques, plus « froides ».

L'emploi de ces formes ne sont pas seulement littéraires, elles sont toujours populaires. Il y a encore des basques qui n'ont presque jamais parlé français, qui n'ont jamais été alphabétisés dans leur langue et qui pratiquent un **euskara** très pur, digne d'un académicien !

Zaharren euskara ederra zaigu le basque des anciens (nous) est beau.

Ariketak

1. Hona euskarazko idazki ttiki bat.

Lehenik entzun ezazu, testoa

begiratu gabe. Ea ulertzen duzun.

Gero berriz irakurri eta itzuliko dugu.

Voici un petit texte en basque.

Tout d'abord écoutez-le, sans regarder le texte écrit. Voyons si vous le comprenez.

Ensuite nous allons le relire et le traduire

Haurra nintzelarik, urtero, opor handiak
Baigorriko aitaxi eta amatxiren baserrian
iragaiten nituen. Lau kusinen artean,
Antton zen maiteago nuena. Biek elkar
ongi aditzen genuen.

Goizean goizik jeikitzen ginen eta behiak

*Quand j'étais petit(e) tous les ans je passais
les vacances dans la ferme de mes grands
parents de Baigorri. Parmi les quatre
cousins, Antton était mon préféré et nous
nous entendions fort bien.*

Nous nous levions de bonne heure et nous

pentzera eramaten genituen. Gero, baratze edo etxeko lanetan parte hartzen genuen. Arratsaldean, inguruko haur guziak biltzen ginen. Zenbat josteta eta kalapita !

Urte batez, Kaliforniako Otto Manex jin zitzaigun eta haur bakoitzari opari bat eskaini zigun.

Hautzaroko oroitzapenak zoin goxoak zaizkigun !

emmenions les vaches dans le pré. Ensuite, nous prenions part au travail, soit au jardin, soit dans la maison. L'après-midi, nous nous retrouvions tous les gosses des environs. Que de jeux et de disputes !

Une année, l'oncle Manex de Californie vint nous voir et il fit un cadeau à chacun des enfants.

Qu'ils(nous) sont doux les souvenirs d'enfance !

2. Orain alderantziz, frantses idazkia euskaraz itzul ezazu :

Et maintenant, au contraire, traduisez le texte du français au basque :

La semaine dernière nous avons décidé(erabaki) d'aller à La Rhune. Mais il pleuvait (euria ari) Alors nous restâmes au lit jusqu'à dix heures. L'après-midi, papa nous emmena au cinéma. gintuen. Le film que nous avons vu était comique. zen.

Joan den astean Larrunera joatea erabaki genuen. Bainan euria ari zen. Orduan ohean egon ginen hamarrak arte. Arratsaldean aitak zinemara eraman Ikusi genuen filma irriegin garria

80 laurogei

Hogeita bostgarren ikasgaiaa

Zuhur hitz

Apirila euritsu, maiatza ihintsu, ekaina errautsu, orduan da laboraria urgulutsu.
Pluie en avril, rosée en mai, poussière en juin, c'est alors que l'agriculteur est fier.

Apirila edo jorraila le mois du sarclage
Maiatza edo loreila le mois des fleurs
Ekaina eki soleil, synonyme **eguzki,**
ekaina évoque le solstice d'été, **uda buru.**

Hogeita laugarren ikasgaiaren berrikuspena

NOR ? NORI ? iraganean

iduri sembler

Zorigaitzak les malheurs **gertatu** arriver

Niri iduritu zitzaidan il m'avait semblé
Hari iduritu zitzaion il lui avait semblé
Guri iduritu zitzaigun il nous avait semblé
Zuri iduritu zitzaizun il t'avait semblé
Zuei iduritu zitzaizuen il vous (plur)avait semblé
Haiei iduritu zitzaien il leur avait semblé

Zorigaitzak gertatu zitzaizkidan il m'arriva
gertatu zitzaizkion il lui arriva
gertatu zitzaizkigun il nous arriva
gertatu zitzaizkizun il vous arriva
gertatu zitzaizkizuen il vous arriva
gertatu zitzaizkien il leur arriva

Herri Urrats

Heldu den igandean, maiatzaren 6an, urtero bezala, Senperen eginen da Herri Urrats, Euskal herri osoan ezagutua den besta. Joan den urtean jadanik aipatu genuen hogeita zazpigarren ikasgaian. Ikasgai hori entzuten ahal duzue larunbatean, maiatzaren 19an, arratsaldeko 5ak eta erditan.

Dimanche prochain, le 6 mai, on va célébrer, comme chaque année à St Pée, Herri Urrats la fête connue dans tout le Pays Basque. L'année dernière, nous l'avions déjà évoquée dans la 27ième leçon. Vous pouvez l'écouter le samedi 19 mai, à 17 h 30.

Aurten, testo bat hartuko dugu 2000 urteko maiatzaren 18-an HERRIA astekarian idatzia izan zena, besta hori aipatuz.

Cette année nous allons prendre un texte qui fut écrit le 18 mai 2000 dans l'hebdomadaire HERRIA commentant cette fête.

HERRI- URRATS SENPEREN **BETI BERDIN KARSU, BETI BERDIN ALEGERA**

81 laurogeita bat

« Besta herrikoiagorik* izan ditake* ? Aurten ere, mundu bat bildu da **Senpereko aintziraren itzuli hortarat** aski molde ederrean ihardetsiz ***Seaska**-k egin deiari*.

Mundu bat eta betiko giro hura, aroa ere arrunt alde, hori ez baita guti ! Kantu, dantza, bertsu, soinu* eta erakusketa*, joaldunak eta hartzak*, buru handiak eta zigateak, aintziraren itzuli guzian besta gaitza* izan da goizetik arats...!

Gisa hortan, Seaska-k ezin hobeki ospatu ditu **bere 30 urteak**. Eskualde guzietarik hoinbeste jende etorririk, gizon eta emazte, gazte eta ez hain gazte...

herrikoia *populaire*, **herrikoiago** *plus populaire*.

izan ditake edo daiteke ? : forme grammaticale qui exprime la possibilité **ahalezkoa**. Nous en reparlerons. Traduction : *est-il possible ?*

ihardetsi, erantzun *répondre*. **Ihardetsiz** *en répondant*.

dei *appel*, **deiadar** *clameur, cri d'alarme*. **adarra** *la corne* avec laquelle on appelait, autrefois, les gens à la rescousse, en cas de danger.

soinu *edo musika*.

erakusketa *exposition* **erakustoki** *musée*.

joaldunak, nous avons déjà parlé de ces personnages du carnaval, **ihauteriak**, qui portent des sonailles, **joareak** sur leurs reins. Autres personnages du carnaval : **hartzak** *les ours*, **buru handiak** *les grosses têtes*, **ziganteak** *les géants*.

gaitza : Cet adjectif peut se traduire par *énorme, extraordinaire*, ce qui est le cas ici, mais il peut se traduire également par *difficile*. **Gaitza**, en tant que nom signifie *maladie, plaie*.

Et maintenant avez-vous compris le texte ? Peut-être, allez-vous le traduire tout seul !

HERRI-URRATS à Saint-Pée **TOUJOURS AUSSI FERVENT, TOUJOURS AUSSI JOYEUX**

Peut-on imaginer une fête plus populaire ? Cette année encore, une foule s'est rassemblée autour du lac de Saint Pée, afin de répondre d'une assez belle façon à l'appel de Seaska (confédération des ikastola).

*La foule et toujours la même ambiance, un temps tout à fait favorable, ce qui, bien sûr, a son importance ! Chants, danses, **bertsu** improvisations, musique et démonstrations, **joaldunak**, les ours, les grosses têtes et les géants, tout autour du lac, Herri-Urrats a été une fête extraordinaire, du matin jusqu'au soir.*

Ainsi, Seaska a fêté, on ne peut mieux, ses trente ans. De partout tant de gens sont venus, hommes et femmes, jeunes et moins jeunes...

Ahalezkoa le potentiel

I. La forme la plus employée se construit à partir du mot **ahal** que nous avons déjà employé :
eginen duzu ahal duzuna *tu feras ce que tu pourras* (23 garen ikasgaia, p. 75)

- **Izan aditzarekin : etortzen ahal naiz** *je peux venir*
ez zara sartzen ahal *tu ne peux pas entrer*
- **Ukan aditzarekin : harri hori errexki altxatzen ahal dut**
je peux facilement soulever cette pierre
ez dugu haragirik jaten ahal
nous ne pouvons pas manger de viande.

Ahal s'emploie avec le verbe à la forme **en**, action qui se réalise: **joaten, etortzen, ikusten...**

82 laurogeita bi

2. On peut employer **ezin** pour exprimer l'impossibilité :

lasterkaria ezin hatsartuz heldu da : *le coureur arrive essoufflé, sans pouvoir respirer.*

3. Il existe une autre forme, plus académique pour exprimer le potentiel, la possibilité.

Dans le texte nous avons : **izan diteke. Euskara batuaz**, *en basque unifié*:

izan daiteke *il est possible*

- **Izan aditzarekin : Andereño, atera naiteke ?** *Maîtresse, je peux sortir ?*

Ez zaitezke sar *Tu ne peux pas entrer.*

- **Ukan aditzarekin : Harri hori altxa dezaket** *Je peux soulever cette pierre.*

Goxoki guziak jan ditzakezu *Tu peux manger tous les bonbons.*

Ahalezkoa, le potentiel s'emploie avec le verbe, à la forme la plus courte, action non encore réalisée : **joan, sar, atera, ikus...**

Voyons la conjugaison complète :

Izan

atera naiteke	<i>je peux sortir</i>	ibil zaitezke	<i>tu peux te promener</i>
sar daiteke	<i>il,elle peut entrer</i>	egon zaitezke	<i>vous pouvez rester</i>
joan gaitezke	<i>nous pouvons partir</i>	ongi bizi daitezke	<i>ils, elles peuvent bien vivre</i>

Ukan

gauza bat, singularrean

gauzak, pluralean

oilasko hori jan dezaket	<i>je peux manger ce poulet</i>	oilaskoak jan ditzaket
ez dezake gezurik erran	<i>il, elle ne peut mentir</i>	zozokeriak erran ditzake
lan egin dezakegu	<i>nous pouvons travailler</i>	lan horiek ez ditzakegu egin
ogia eros dezakezu	<i>tu peux acheter le pain</i>	sardinak eros ditzakezu
filma ikus dezakezue	<i>tu peux regarder le film</i>	filmak ikus ditzakezue
kantua ikas dezaket	<i>ils,elles peuvent apprendre</i>	kantuak ikas ditzaket

Ariketak

1. Euskaratik frantsesera :

-Zure laguntzaren beharra dut.
 Bihar etor zaitezke ?
 - Ez, bihar ez naiz etortzen ahal.
 Banoa medikuaren ikustera. Etzi
 etorriko naiz.
 - Joan den urtean ez nuen Herri-Urrats
 bestan parte hartu, Parisen nintzelako.

-J'ai besoin de ton aide. Peux-tu venir demain ?
 - Non, demain je ne peux pas venir.
 je vais voir le médecin. Je viendrai après-demain.
 - L'an dernier je n'avais pas assisté à la fête
 d' Herri-Urrats, parce que j'étais à Paris.

2. Frantsetetik euskarara :

- Cette année, j'irai avec mes amis et
 nous pourrons faire la fête du matin
 jusqu'au soir.
 - Peux-tu m'emmener en voiture ?

**Aurten, lagunekin joanen naiz, besta egiten
 ahal dugu goizetik arats (besta egin dezakegu
 goizetik arats). On peut dire arats ou arrats.
 Beribilez eramaten ahal nauzu ?**

83 laurogeita hiru

Hogeita seigarren ikasgaia

Hogeita bostgarren ikasgaiaren berrikuspena

Ahalezkoa le potentiel

La forme la plus employée se construit à partir du mot **ahal** qui veut dire *pouvoir* :
zatoz ahal bezain laster viens le plus vite possible.

. **Izan aditzarekin : ez nintzen egoten ahal** : je ne pouvais pas rester.

. **Ukan aditzarekin : Hobeki lan egiten ahal zenuen** : tu pouvais mieux travailler.

ahal s'emploie avec le verbe à la forme **en**, action qui se réalise: **egoten, sartzen, ikasten...**

L'auxiliaire varie, comme toujours, selon le temps, selon le mode :

ez dut lan egiten ahal, ez nuen lan egiten ahal... je ne peux pas, je ne pouvais pas...

ez zintuen ezagutzen ahal il, elle ne pouvait pas te connaître...

La forme qui suit est moins employée... mais recommandée :

Izan

etor naiteke
 joan daiteke
 egon gaitezke
 ibil zaitezke
 sar zaitezke
 atera daitezke

kantua ikas dezaket
 kantua ikas dezake
 kantua ikas dezakegu
 filma ikus dezakezu
 dezakezue
 dezakete

Ukan

kantuak ikas ditzaket
 kantua ikas ditzake
 kantua ikas ditzakegu
 filmak ikus ditzakezu
 ditzakezue
 ditzakete

SUBJUNTIBOA

Il faut que nous abordions également le subjonctif. Nous allons l'employer dans le dialogue
 suivant :

Elkarriketa

Gomendioak Les recommandations

Gau honetan Patxi eta Maddalen lagun batzuekin ateratzen dira. Etxean dago Arantxa, hemezortzi urteko neska gaztea, haurtzaina eta haurrak, Iñaki sei urte eta arreba, Idoia, lau urte.

« Ez dira gaixtoak, dio Amak, bainan zalapartariak, debrua dute berekin !

Beti zaindu behar dira ez dezaten zozokeriarik egin.

Aitak : Eta ez ahantz atea gakozen hestea, ez daitezen atera.

Amak: Afaria prest da, jan ezazue nahi duzularik.

Patxi et Maialen sortent ce soir avec des amis. Arantxa, une jeune fille de 18ans va garder les enfants, Iñaki, 6 ans et sa soeur, Idoia, 4 ans

« Ils ne sont pas méchants, dit la mère, mais turbulents, ils ont le diable dans la peau

Il faut constamment les surveiller afin qu'ils ne fassent pas de bêtises.

Le père : Et n'oubliez pas de fermer la port à clé, pour qu'ils ne sortent pas.

Maman:Le dîner est prêt, vous mangez quand vous le voulez.

84 laurogeita lau

Arantxak : Telebista begiratzen ahal dute ?

Amak : Bai, bihar igandea da, filma ikus dezakete.

Arantxak : Zer tenoretan oheratu behar dute ?

Aitak : Hamarretan, eta gero berehala lo ! Ados, haurrak ?

Haurrak : Bai Aita, ez kexa. Eta zuek pas.

xintxo ibili !

Aita eta amak irriz : debru xirtxilak !

Arantxa : Ils peuvent regarder la télévision?

Maman : Oui, demain c'est dimanche, ils peuvent regarder le film.

Arantxa : A quelle heure doivent-ils se coucher?

Papa: A dix heures et ensuite, dodo! D'accord, les enfants ?

Les enfants : Oui Papa, ne t'en fait

Et vous, soyez sages !

Papa et maman en riant: Sacrés garnements!

Subjuntiboa

Pour exprimer un ordre, une demande, on n'emploie pas systématiquement le subjonctif, ni en basque, ni en français :

1. Pour traduire *il faut que*, on emploie **behar** :

oheratu behar dute *il faut qu'ils se couchent* ou ils doivent se coucher.

(**oheratu, ohera joan** : expressions synonymes, comme **etxeratu, etxera joan**)

gogorki lan egin behar genuen *Il fallait que nous travaillions dur.*

2. Le suffixe verbale **teko, tzeko** :

erran diot etortzeko *je lui ai dit de venir.*

gurekin jateko *pour manger avec nous*

On emploie le subjonctif pour traduire *pour que, afin que*:

. **Ukan aditzarekin** : **zaindu behar dira ez dezaten zozokeriarik egin.**

Nous avons déjà employé cette forme à l'impératif : **kanta dezagun** : *chantons.*

. **Izan aditzarekin** : **atea hetsi behar da, ez daitezen atera.**

La conjugaison complète

Izan

Deitu dute heiekin joan nadin

pour que j'aille

dadin	<i>pour qu'il, elle aille</i>
gaitezen	<i>pour que nous allions</i>
zaitezen	<i>pour que tu ailles</i>
zaitezten	<i>pour que vous alliez</i>
daitezen	<i>pour qu'ils, elles aillent</i>

Ukan

Amak armarioko atea gako z hetsi du, txokolatea ez dezadan jan biskotxak ez ditzadan jan
Maman a fermé la porte de l'armoire à clé pour ne pas que je mange le chocolat et les biscuits.

85 laurogeita bost

hark xokolatea ez dezan jan	bixkotxak ez	ditzan jan	guk
dezagun		ditzagun	
zuek		ditzazun	
zuek		ditzazuen	
haiek		ditzaten	

Ariketak

Euskaratik frantsesera :

- Ur freskoa ekarri dizuet gustora edan dezazuen.
- Mendi hortara igaiteko, ez daiteke beribilez joan. Beraz goazen oinez.
- Erran zidaten ez nintzela goiti joaten ahal ttikiegi nintzelako.
- Bainan, ni nintzen zaluena.
- Patxi deitu dut gurekin etor dadin bihar.

- *Je vous ai apporté de l'eau fraîche pour que vous buviez avec plaisir.*
- *Pour grimper cette montagne, on ne peut pas aller en voiture. Allons donc à pied.*
- *On m'avait dit que je ne pouvais pas monter parce que j'étais trop petite.*
- Mais c'est moi qui étais la plus rapide.*
- *J'ai appelé Patxi pour qu'il vienne avec nous demain.*

Frantsesetik euskarara :

- *Le 8 avril nous étions allés à Bayonne pour voir l'arrivée de la Korrika.*
- *Maritxu nous dit qu'elle viendrait et que et que nous allions nous retrouver devant la mairie. Mais il y avait trop de monde et nous ne l'avions pas vue.*
- *Tu feras ce que tu pourras et non pas ce que tu voudras.*

- **Apirilaren lauean Baionara joan ginen Korrikaren ikustera.**
- **Maritxuk erran zigun etorriko zela eta elkartuko ginela Herriko Etxearen antzinean. Bainan sobera jende bazen eta ez genuen ikusi.**
- **Egiten duzu ahal duzuna ez eta nahi duzuna.**

Hogeita zazpigarren ikasgaia

Hogeita seigarren ikasgaiaren berrikuspena

Subjuntiboa, orainean

Izan	Ukan	
	singularrean	pluralean
joan nadin	filma ikus dezadan	filmak ikus ditzadan
dadin	dezan	ditzan
gaitezen	dezagun	ditzagun
zaitezen	dezazun	ditzazun
zaitezten	dezazuen	ditzazuen
daitezen	dezaten	ditzaten

Oharrak :

- L'auxiliaire au subjonctif porte toujours la terminaison **n** ou **en**.
- **Izan**: La première lettre du verbe est la même au présent de l'indicatif et au présent du subjonctif : **naiz, nadin da, dadin gara, gaitezen zara, zaitezen**
zarete, zaitezten dira, daitezen

- **Ukan**: Si le COD est au singulier, le verbe commence par **deza** et si le COD est au pluriel, le verbe commence par **ditza**.

C'est la terminaison qui exprime le sujet :

nik=> dezadan hark=> dezan guk=> dezagun zuk=> dezazun
zuek=> dezazuen haiek=> dezaten.

Eta orain subjuntiboa iraganean :

Elkarrizketa

Nolako aita, halako seme *tel père, tel fils*

- Zure aita mariñela da ?
 - Bai, itsasuntzi baten kapitaina da.
 Mundu guzian zehar dabila !
 - Zure familian, seguraski gehienak mariñelak dira, ez?
 - Bai zera ! Aitatxi Donostiako xirribikari* famatua zen eta nahi zuen, baitezpada, semeak gauza bera egin zezan, Madrileko orkestra handiaren musikari izan zedin.
 Eta zure aitak, zer zion ?

- Ton père est marin ?
 - Oui, il est capitaine de vaisseau. Il parcourt le monde entier !
 - Dans ta famille, la plupart sont des marins n'est-ce pas ?
 - Penses-tu ! Mon grand-père était un violoniste célèbre à Donosti et il voulait à tout prix que son fils fasse la même chose, et qu'il devienne musicien dans le plus grand orchestre de
 - Et que pensait ton père ?

87 laurogeita zazpi

- Ez zuen, nihundik ere, nahi ! Tiki tikitik itsasoa itsuski maite zuen eta maiz, eskolara joateko ordez, portura joaten zen, arrantsaleen artean gordetzea.
 Azkenean, aitak erran zuen: « Joan dadila, egin dezala nahi duena ! » Eta osaba Felixek bere barkuan hartu zuen untzi-mutil bezala.
 Gero, itsas-eskola batetan ikasketak egin zituen

- Il ne le voulait absolument pas ! Depuis sa plus tendre enfance, il aimait passionnément la mer et au lieu d'aller à l'école, il allait au port se cacher parmi les pêcheurs. Finalement, son père dit: « Qu'il s'en aille, qu'il fasse ce qu'il veut ! » et l'oncle Felix le prit sur son bateau comme mousse. Plus tard, il fit ses études dans une école

eta hogeita bost urtetan kapitain titulua ukan zuen.

maritime et à 25 ans, il prit le grade de capitaine.

- To, « nolako aita, halako seme » erraten da. *n'est*

- Tiens, on dit « tel père, tel fils ». Ce

Zure familian ez da hola gertatu ! Eta zuk, zer eginen duzu ?

pas le cas chez toi ! Et toi, que vas-tu faire ?

- Ez dakit, musika maite dut, bai eta ere ere kirolak. Oraindik ez dut hautatu.

- Je ne sais pas, j'aime la musique, mais aussi les sports. Je n'ai pas encore choisi.

Subjuntiboa, orainean eta iraganean

orainean	Izan	iraganean
NA di n	NEN din	
DA di n	ZE di n	
GA ite Z en	GIN te Z en	
ZA ite Z en	ZIN te Z en	
ZA ite ZTE n	ZIN te ZTE n	
DA ite Z en	ZI te Z en	

Ukan

DEZAda n	DITZAda n	N e za n	Nit za n
DEZA n	DITZA n	Z e za n	Zit za n
DEZAgua n	DITZAgua n	GENe za n	GENit za n
DEZAzu n	DITZAzu n	ZENe za n	ZENit za n
DEZAzue n	DITZAzue n	ZENe zaTEN	ZENit zaTEN

DEZAte n DITZAte n

Z e zaTEn Zit zaTEn

Ne vous cassez pas trop la tête ! Dans le langage courant, on emploie rarement le subjonctif passé. Les personnes les plus employées sont, bien sûr, celles de la 3^{ème} personne du singulier et du pluriel : **Peio deitu dut etxean egon dadin=> deitu nuen etxean egon zedin**

lan egin dezan. => lan egin zezan.

J'ai appelé Peio afin qu'il reste à la maison et qu'il travaille

Deitu ditut etxean egon daitezen => deitu nituen etxean egon zitezen

lanak egin ditzaten => lanak egin zitzaten

88 laurogeita zortzi

Une expression que l'on emploie souvent à l'impératif, **agintaldia**, de deux façons :

joan dadila ou **joan bedi** *qu'il, elle s'en aille.*

egin dezala ou **egin beza** *qu'il, elle le fasse.*

Ariketak

Euskaratik frantsesera :

- Bihar goizean lan egin behar dugu dena bukatua izan dadin heldu den astean.
- Ez du gurekin etorri nahi ? Ados, egon dadila (bedi) bakarrik etxean.
- Tarrapataka (à toute allure) lanean ari da, lehen bai lehen ateratzeko.
- Aitak atea ongi hetsi zuen haurrak ez zitezen atera, bainan horiek leihotik eskapatu ziren.
- Ahuntzak (les chèvres) zaindu behar zenituen, baratzeko landareak ez zitzaaten jan.

- Nous devons travailler demain matin pour que tout soit terminé la semaine prochaine.
- Il, elle ne veut pas venir avec nous ? D'accord, qu'il, elle reste tout(e) seul(e) à la maison.
- Il, elle travaille à toute allure pour sortir le plus tôt possible.
- Papa ferma bien la porte pour que les enfants ne sortent pas, mais ceux-ci s'échappèrent par la fenêtre.
- Tu devais surveiller les chèvres pour ne pas qu'elles mangent (mangeassent !) les légumes.

Frantsesetik euskarara :

- Il faut que tu t'entraînes (trebatu) beaucoup pour être un bon pelotari.
- Qu'il fasse ce qu'il veut, cela m'est égal.
- Pour acheter cette maison, il te faut beaucoup d'argent.

- Anitz trebatu behar zara, pilotari on bat izateko.
- Nahi duena egin dezala, berdin zait.
- Etxe horren erosteko, diru anitz behar duzu.

Esanaldiak iraganean ezar itzazu Mettez les phrases au passé :

- Peio deitu dut gurekin Bilbora joan dadin.
- Eskatzen dizuet etortzeko, elgarrekin lan egin dezagun.
- Haurrek eskatu digute Biarritzera joatea itsas-erakustokia bisita dezaten.

- Peio deitu nuen gurekin Bilbora joan zedin.
- Eskatzen nizuen etortzeko elgarrekin lan egin genezan.
- Haurrek eskatu ziguten Biarritzera joatea itsas-erakustokia bisita zezaten.

89 laurogeita bederatzi

Hogeita zortzigarren ikasgaia

Hogeita zazpigarren ikasgaiaren berrikuspena

Subjuntiboa, iraganean

Ainsi que nous l'avons dit la semaine dernière, dans le langage courant, on n'emploie pas beaucoup ce mode, notamment au passé. Cependant il est important de connaître ces formes :

Izan		Ukan
Eskatu zuen ni etor nendin	nik liburua irakur nezan	liburuak irakur nitzan
Xabi etor zedin	hark irakur zezan	zitzan
gu etor gintezen	guk irakur genezan	genitzan
zu etor zintezen	zuk irakur zenezan	zenitzan
zuek etor zintezten	zuek irakur zenezaten	
zenitzaten		
Xabi eta Patxi etor zitezen	haiek irakur zezaten	zitzaten

